

Irakasleen ebaluazioa EAEn. Protagonista eta eragileek irakasleen ebaluazioari buruz duten iritzien azterketa

Tesiaren egilea: M. Arrate Oianguren Txurruka

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

Doktorego-programa: Erronkak eta diziplina arteko erantzunak

Jakintza-arloa: Didaktika eta Eskola Antolakuntza

Tesi-zuzendaria: Urtza Garay Ruiz eta Begoña Bilbao Bilbao

Tesiaren laburpena:

Irakasleen ebaluazioa izan du ardatz ikerketak. Izan ere, egun, hezkuntza-sistemaren kalitatearekin lotzen da irakasleen kalitatea, eta hezkuntza-sistema gehienetan ekin bazaio ere irakasleen ebaluazioari, EAEn ez da oraingoz halako planteamendu sistematikorik abian. Horiek horrela, ebaluazio-prozesuen arrakasta inplikatuaren konbentzimenduan oinarritzen denez, egoera ulertu eta aldatu nahian egin da tesia.

Gure ikerketan, ebaluazioaren lehen mailako protagonista liratekeen irakasleen iritzi, ezagupen eta beharrak jaso, eta administrazioko ordezkari, guraso eta ikasleen iritziarekin alderatu dira. Guztien esanak eta usteak bildu, eta adostasun nahiz desadostasunak aztertuta, ebaluazio-eredu bideragarri baten ildoak zehaztu dira, hartara balizko ebaluazio horrek EAeko Derrigorrezko Hezkuntzako irakasleentzako ebaluazio-proposamen batek kontuan hartu behar lituzkeen printzipioekin bat etortzeak ematen duen bermea izan dezan.

Halaber, irakasleen ebaluazioa testuinguruan jartzeko, nazioartean duen egoera aztertu da, baita hezkuntza-legeetan izan duen garapena laburtu ere. Adituen ekarpenak ere jaso dira, zenbait gairen inguruan: hezkuntza-ikerikuntza, garapen historikoa, eta ebaluazio kontzeptua, betiere irakasleen ebaluazioan sakonduz, bereziki.

Ikerketarako, balioztatutako galdetegiak, elkarrizketak eta eztabaida-taldeak erabili dira. Honatx ondorio nagusiak: hezkuntzari buruzko informazioa izatea eskubide pertsonal soziala da, ariketa demokratikoa; eskola-komunitatea prest dago ebaluazioari ekiteko, eta ez du uste kontrol-nahian edo autonomia mugatu nahi izatean oinarritzen denik; irakasleria prest dago ebaluaziorako, baina ondorioek eta datuen erabilerak kezkatzen dute; irakasleek autoebaluazioaren eta koebaluazioaren aldeko jarrera dute, baina ikasleek ebaluatzaile izan nahi dute; ebaluagaien artean, gelako giroa, ikasleekiko harremana, eta gelako jarduera gailentzen dira, eta hobekuntza-proposamenak eta orientazioak emanez adierazi beharko lirateke emaitzak hala irakasleentzat nola sistemarentzat, besteak beste.

Azken buruan, ebaluazioak protagonisten iritzietan oinarritu nahi izatekotan, irizpideok hartu behar lituzke kontuan:

- Diseinatzean, hasieratik hartu behar lukete parte hezkuntza-komunitateko kideen ordezkariak.
- Ebaluazio formatiboa irudikatzen da, etengabeko hobekuntza bultzatu eta irakasleei beren ibilbidean hobetzeko urratsak eskainiko dizkiena. Ebaluazio integrala, aberatsa eta askotarikoa nahi da, ebaluatzaile, tresna eta prozeduretan. Autoebaluazioa, koebaluazioa eta ikasleen iritzia ezinbestean txertatu beharko lirateke.
- Ikastetxeko barneko ebaluazioak, edo behintzat testuinguratua dagoenak, adostasuna jasoko luke.
- Ondorioak izatea onartuko litzateke: meritua eta formazioa ekarriko lituzke, baldin eta ebaluazioa positiboa balitz; eta muga izango lukeen hobetzeko aukera berria eskainiko luke, emaitza ona izan ez denean.
- Irakasleen kezka eta erresistentziak saihestu daitezke, parte-hartzea, gardentasuna eta adostasuna bermatuz.